



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko martxoaren 11

25 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duena. Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako jatorrizko deitura duen ardoaren sektorea sustatzekoa. Tramitera ez onartua (5. or.).

—Foru Lege proposamena, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen abenduaren 30eko 23/1997 Foru Legea aldatzekoa. Tramitera ez onartua (5. or.).

—Foru Lege proposamena, Toki esparruko herri kontsultak arautzen dituena. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).

—Foru Lege proposamena, Helduen hezkuntza arautzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, Hizkuntza Eskola Ofizialean urte honetarako aurreikusitako oposaketetatik euskarazko gaiterik ez egoteagatik bi lanpostu erretiratzeari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (7. or.).

—Jabeldura, Nafarroako Gobernuak Vianako Printzea Erakundearen bitartez egiten duen politika kulturalari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (8. or.).

—Jabeldura, Komunitatea modernizatzeko helburuz Nafarroako Gobernuak egiten dituen garapen- eta azpiegitura-politikei buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen dio UGTK bultzaturiko laneko iraunkortasun eta segurtasunerako herri-ekimen legegileari, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da liburutegiei buruzko foru lege proiektu bat igor dezan, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da garapen-bidean dauden herriek osasun publikoaren arloan dauzkaten jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzeko neurriak bultza ditzan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akademietako ikasleentzako informazioa arautuko duen lege proiektu bat igor dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak bazter utzia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Justizia Administrazioaren politika administratiboaren ildoak alda ditzan, oro har eta lehenbailehen. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsia (14. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Asteraingo errepideak Irurtzundik pasatzean sortzen dituen arazoei buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina (15. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan “aparteko orduak” kontzeptupean 2001eko lehen hiruhilekora arte eginiko ordainketei buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (16. or.).
- Galdera, ekialdeko saihebidetako obrei buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (16. or.).
- Galdera, aurten gertatutako suteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, ondare historikoaren inentarioan ageri diren etxebizitzak zaharberritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Mendillorriko bidegurutzean irailaren 1ean egin zen trafikokontrolari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jardue- ra ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duena

INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duen Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori, 2001ko ekainaren 25eko 70. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, ez da zuzenketarik mantendu, ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 2002ko martxoaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Irizpena **Foru Lege proiektua, Nafarroako** **“Berrikuntza Hiria” sustatzeko,** **jarduera ekonomikoen edo aukeren** **eremua besterentzeko prozesua** **arautzen duena**

ZIOEN AZALPENA

Foru lege honen asmoa da berrikuntza teknologikorako proiektu baliagarri bat sustatzea, hazkunde ekonomiko saneatu baten oinarriak finkatzeko. Gisa horretako proiektuek, sare ekonomikoaren etengabeko berriztapena bermatzen baitute, tratamendu juridiko egokia behar dute, erakundeen arteko lankidetzaren esparruan.

Sarrigurengo eko-hiria izeneko proiektuak hartuko duen eremua toki paregabea izanen da enpresa berritzaileak kokatzeko, tamaina, sarbide, ekipamendu eta zerbitzu egokiak izateko aukera eskainiko baitie. Horrela, ingurumena errespetatuko duten teknologiak garatu eta ezartzeko jardue-

rak ahalbidetuko dira, batez ere etorkizun handiko sektoreetakoak, hala nola, telekomunikazioak, industri material berriak, elektronika, informatika eta puntako bestelako alorretakoak. Diseinu eta taxuketa aldetik ezaugarri ekologiko eta bioklimatiko agerikoak dituen eremu batean txertatuko dira aipatu jarduerak, ezaugarri horiek baitira proposaturiko garapen berriaren ardatz komunak. Ahalegin bateratu horien ondorioz, Sarrigurengo eremua izen handiko ingurune erakargarria bilaka daiteke, etxebizitzaren eta jarduera ekonomikoen alorretako ekimen harmonikoetarako, ingurumenari dagokionez irizpide berberak izanik, bizi-kalitatearen sorburu izanen diren ekimenetarako, alegia.

“Berrikuntza hiria” oinarritzko bi etapatan gauzatu ahal da, beharrezkoak diren lurren ordura arteko erabilera aldatu, eta foru lege honen bidez lortu nahi den erabilerarako egokiak direla deklaratu ondotik. Proposatu diren jarduera berritzaileak garatu ahal izateko, garrantzi handiko baldintza izanen da lurzatiak prezio mugatuan eskaintzeko aukera egotea interes teknologiko handiena duten ekimenetarako. Abenduaren 29ko 24/2000 Foru Legeak, Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua besterentzeko prozesua arautzen duen horrek, lurzorua merkataritzako erabilpenetarako besterentzeko, enkantean jarriz saltzea ezartzen du, baina argi da prozedura hori aipatu baldintzarekin bateraezina dela. Hortaz, prozedura egokiak aplikatzeko moduak ahalbidetu behar dira, proiektatutako jarduera berrietarako lurzorua besterentzearen.

Artikulu bakarra. 1. Abenduaren 29ko 14/2000 Foru Legearen 3. artikuluan aipatzen den jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua berrikuntza teknologikoekin zerikusia duten industri eta zerbitzu arloko jardueretarako erabiliko da, eta

ingurune horretan kokatuko den Berrikuntza Hiria-
ren lehenengo fasea izanen da.

2. Nafarroako Gobernuak Sarrigurengo eremuaren planeamendua burutzea Foru Komunitateko kapital publikoko elkarteren baten esku uzten badu, eremu horretako bere titulartasuneko ondasun eta eskubideak delako elkarte horri eskualdatu ahalko dizkio. Nolanahi den ere, hirigintza jarduketa horren ondoriozko ondasun eta eskubideak hirugarrenei besterentzea edo eskualdatzea honela egingen da:

a) Abenduaren 29ko 14/2000 Foru Legean ezarritako moduari eta baldintzei jarraikiko zaie, lurzorua etxebizitzetarako bada.

b) Jarduera ekonomikoen edo aukeren eremuan egon eta industria erabilera duten ondasun eta eskubideen kasuan, lehenetasuna emanen zaio enkanteari haiek hirugarrenei besterendu edo eskualdatzeko; bestela, behar bezala justifikatutako kasuetan, Nafarroako Gobernuak sustaturiko industrialdeetako lurzatiak sartzeari buruzko arauetan ezarritako prozeduraren arabera jokatu da.

c) Betiere merkataritza edo zerbitzu erabilere-tarako lurzoruen salmenta enkante bidez egingen da.

Xedapen gehigarria

Etxebizitza-ezarpenei dagokienez eta eremuan ezarri nahi diren jarduera ekonomikoei dagokienez ere, proiektua berritzailea denez, ondoko neurri orokorrak aplikatuko dira eraikinetan mugimenduzko minusbaliotasunen bat daukaten pertsonen Sarrigurengo Eko-hiriko etxebizitzaren eskuratzea errazteko:

a) Etxebizitza kolektibo guztiek, gutxienez ere, igogailua jartzeko tarte bat edukiko dute aurreiku-

sia, gero batean aukera hori gauzatzeko modua izan dadin.

b) Gutxienez ere igogailu bat proiektatu eta egingen da beheko solairua gehi beste bi solairu edo gehiago dauzkaten erakinetan sortzen den komunikazio bertikaleko gune bakoitzean, 154/89 Foru Dekretuan bildutako zehaztasunei jarraituz.

c) Etxebizitzak egiteko orubeak adjudikatzeko lehiaketetan, behar diren baldintza-orrien bitartez, puntuak emanen dira etxebizitzaren diseinuan mugimenduzko minusbaliotasun larriak dauzkaten pertsonen beharretara egokitzeko erraztasunak aurreikusteagatik. Halaber, etxebizitzetako beheko solairuak halako minusbaliotasunak dauzkaten pertsonentzat bereziki uzten dituzten proposamenen dagokien puntuazioa emanen zaie lehiaketan.

d) Beheko solairua gehi bi solairu izan eta beheko solairuetan etxebizitzak egiteko aukera eskaintzen duten etxebizitza-eraikinetan, baldin eta sustapen publikoak badira, mugimenduzko minusbaliotasun larria duten pertsonen emanen zaie lehenetasuna etxebizitza horiek eskuratzeko.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Indarrik gabe utzi dira Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua besterentzeko prozesua arautzen duen abenduaren 29ko 14/2000 Foru Legearen 3 eta 6. artikulua eta xedapen iragankorra.

Orobat, indarrik gabe utzi dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheagoko xedapenak oro.

Bigarrena. Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako jatorrizko deitura duen ardoaren sektorea sustatzekoa

TRAMITERA EZ ONARTUA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2002ko martxoaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko taldeek Nafarroako jatorrizko deitura duen ardoaren sektorea sustatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu zuten.

Nafarroako Gobernuak 2002ko otsailaren 18an hartutako erabaki batean, aipatu foru lege propo-

samena tramitatzearekin ados ez dagoela adierazten du, aurrekontuko kredituen gehikuntza suposatzen duelako. Erregelamenduko 145.3. artikuluekin bat, ERABAKI DA:

Lehena. Nafarroako jatorrizko deitura duen ardoaren sektorea sustatzeko Foru Lege proposamena ez tramitatzea.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2002ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen abenduaren 30eko 23/1997 Foru Legea aldatzekoa

TRAMITERA EZ ONARTUA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2002ko martxoaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen abenduaren 30eko 23/1997 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen.

Nafarroako Gobernuak 2002ko otsailaren 18an hartutako erabaki batean, aipatu foru lege proposamena tramitatzearekin ados ez dagoela adierazten du, aurrekontuko kredituen gehikuntza

suposatzen duelako. Erregelamenduko 145.3. artikuluekin bat, ERABAKI DA:

Lehena. Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen abenduaren 30eko 23/1997 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena ez tramitatzea.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2002ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Toki esparruko herri kontsultak arautzen dituen

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2002ko otsailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Toki esparruko herri kontsultak arautzen dituen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2001eko urriaren 30eko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145, 149 eta 150. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehen. Toki esparruko herri kontsultak arautzen dituen Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Toki Administrazioako Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2002ko apirilaren 4ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145.5 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2002ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Helduen hezkuntza arautzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2002ko otsailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Helduen hezkuntza arautzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2001eko azaroaren 26ko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehen. Helduen hezkuntza arautzen duen Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza eta Kultura Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2002ko apirilaren 4ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145.5 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2002ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Hizkuntza Eskola Ofizialean urte honetarako aurreikusitako oposaketetatik euskarazko gaitegirik ez egoteagatik bi lanpostu erretiratzeari buruzkoa

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko jabeldura aurkeztu zuen: "Jabeldura, Hizkuntza Eskola Ofizialean urte honetarako aurreikusitako oposaketetatik euskarazko gaitegirik ez egoteagatik bi lanpostu erretiratzeari buruzkoa".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 4an egindako bilkuran, aipatu jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

JABELDURAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babespean, honako jabeldura hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Hezkuntza Departamentuak urte honetarako aurreikusitako oposaketetatik Hizkuntza Eskolako bi lanpostu erretiratzea erabaki du, euskara sailari dagozkionak hain zuzen ere. Hori egiteko erabilitako argudioa euskarazko lanpostuetarako gaitegirik ez egotea izan da. Antza denez, Espainiako Hezkuntza Ministerioak estatuko hizkuntza eskoletan irakasten diren hizkuntzen gaitegia egiterakoan, euskarazko gaitegia egitea "ahaztu" omen zaio. Eta Nafarroako Hezkuntza Departamentua oposaketak martxan zirenean, azkeneko orduan, gaitegia falta zela konturatu omen da.

Gertakari hau zinez harrigarria egiten zaio sen arrunteko edozein pertsonari. Ehundaka langile, teknikari, aholkulari dituzten espainiar Hezkuntza

Ministerioari euskararen gaitegia "ahazten" zaio eta Nafarroako Hezkuntza Departamentua azkeneko orduan "konturatzen" da. Argi ikus daiteke zer nolako arreta eskaintzen zaion nafarron hizkuntzari, euskarari. Eta azkenean, horra emaitza: euskarazko bi lanpostu oposaketatik kanpo. Azkeneko urteotan maiz gertatu bezala, euskararen normalkuntza prozesua da batzuen zein besteen axolagabekeriaren (kasu hoberenean) kaltetua.

Bestalde, gertakari honek argi eta garbi erakusten du zer nolako dependentsia mailak ematen diren Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren aldetik espainiar Hezkuntza Ministerioarekiko. Teorian hezkuntza mailako erabateko eskumenak ditu geure herrialdeak, baina praktikan oposaketa batzuentzako gaitegia bezalako kontu arruntak espainiar ministerioaren esku daude.

Guzti hau dela-eta, Batasunak jabeldura hau aurkezten dio Gobernuari, gertakari hau eta bereziki honako auzi hauek argitu ditzan:

- Noiz eta nola konturatu zen Hezkuntza Departamentua euskarazko lanpostuentzako gaitegirik ez zegoela.
- Zein bide hartuko duen Hezkuntza Departamentuak euskarazko gaitegiak prest egon daitezkeen bermatzeko. Asmorik ote daukan gaitegi propioa lantzeko.
- Zer balorazio merezi dion Gobernuari espainiar Hezkuntza Ministerioa izatea gaitegiak finkatzeko eskumena daukana.
- Noizko burutuko dituen Hezkuntza Departamentuak euskarazko bi lanpostu horiei dagozkien oposaketak.

Iruñean, 2002ko otsailaren 28a

Eleduna: Joxe Pernando Barrena Arza

Jabeldura, Nafarroako Gobernuak Vianako Printzea Erakundearen bitartez egiten duen politika kulturalari buruzkoa

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko jabeldura aurkeztu zuen: "Jabeldura, Nafarroako Gobernuak Vianako Printzea Erakundearen bitartez egiten duen politika kulturalari buruzkoa".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 4an egindako bilkuran, aipatu jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoa rekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, 179. artikulua eta hurrengoak aplikaturik, jabeldura bat aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Vianako Printzea Erakundearen bitartez egiten duen politika kulturalari buruzkoa, Nafarroako Osoko Bilkuran tramitatzeko.

Jabelduraren justifikazioa

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak kezka adierazi nahi du Nafarroako Gobernuak Vianako Printzea Erakundearen bitartez egiten duen kultur politika dela eta. Erakunde horrek, zuzendaritza nagusia bihurturik duela bi hamarkadatik gora, ez du sekula gaur egungoa bezalako kinka larriagorik ezagutu, kultura oinarritzat duten zenbait eztabaidaren jomuga izan baita eta, gure ustez, herritar askoren kritika eragile, zuzendaritzak mendekotasun gehiegizkoa duelakoan UPNren interes politiko eta alderdikoie-kiko.

Legegintzaldi honen hiru urte hauetan, bereziki azken garaiotan, Nafarroako Gobernuaren kultur arloko politika eta hura gauzatzen duen erakundea eztabaida gehiegitan sarturik ikusi dugu, bere

jarduketak berak eraginda, erakundearen irudia kaltetuz eta batzutan UPNk gutxiengoan duen Gobernuari komeni zaionari makurtzen dela erakutsiz.

Erakundeak Baluartearen lanetan agertutako hondakinen tratamendu egokiari heltzea gehiegi luzatu izana; Arte Modernoaren Zentroa Gotorlekuko eraikin ez-egokietan kokatzeko aukeraren aurrean izandako portaera arraroa; ikastetxe publiko bat Ezpeleta jauregian nola edo hala sartzeko ahalegina –ia gauzatua–, liburutegi nagusia egungo San Francisco eskoletan jartzeko; Gazteluko Plazako aparkalekurako lanetan erakutsi duen sentsibilitate falta eta eraginkortasun zalantzarzkoa; eta Oteiza Museoko Fundazioaren inguruko gertaerak, karkianoak erabat, haren jarduketa oztopatzen ari baita kontrol politikoaren nahiak eraginda...; afera guzti horiek Parlamentuko talde honek sustatuak, Nafarroako Gobernuaren beraren eta haren kultur arloko arduradunen jardun eskasak baizik, haiek baitira jabeldura hau proposatzera bultzatu gaituzten kezken sorburuan.

Arrazoi horiengatik, Gobernuari jabeltzen gatzazkio, jakiteko zein den afera honen diagnostiko egokiena eta Parlamentuak zein neurri proposa ditzakeen "Vianako Printzea" erakundearen kultur politikaren egoera oker hori aldatu ahal izateko. Aurrerago, Parlamentuko talde honek, Gobernuaren hitzak behar bezain sinesgarriak ez direla irudituz gero, gaiari buruzko mozioa aurkeztuko luke, "Vianako Printzea" Erakundearen egungo arduradunaren kargu uztea eskatzeko aukera barne har lezakeena.

Proposatzen dugun jabeldura

Gobernuari jabeltzen gatzazkio jakiteko zein den Nafarroako Gobernuak Vianako Printzea Erakundearen bitartez egiten duen politika kulturala.

Iruñean, 2002ko martxoaren 1ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Jabeldura, Komunitatea modernizatzeko helburuz Nafarroako Gobernuak egiten dituen garapen- eta azpiegitura-politikei buruzkoa

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko jabeldura aurkeztu zuen: "Jabeldura, Komunitatea modernizatzeko helburuz Nafarroako Gobernuak egiten dituen garapen- eta azpiegitura-politikei buruzkoa".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 4an egindako bilkuran, aipatu jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, 179. artikulua eta hurrengoak aplikaturik, jabeldura bat aurkeztu du, erkidegoa modernizatzeko eta barnetik orekatzeko helburuarekin Nafarroako Gobernuak egiten dituen garapen- eta azpiegitura-politikei buruzkoa eta norabidea eman behar dien ingurumenarekiko konpromisoari buruzkoa.

Jabelduraren justifikazioa

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak kezka adierazi nahi du Nafarroako Gobernuak garapen eta azpiegituren arloan –bideak, ekipamenduko zerbitzuak, eta oro har, aurrerapen ekonomikoari begira– egiten duen politikaren aurrean, bai eta ingurumenarekiko konpromisoaren aurrean ere, ez zaigulako behar bestekoa iruditzen erkidegoa modernizatzeko eta barne oreka bilatzeko lanetan aurrera egiteko.

Legegintzaldi honen lehendabiziko hiru urteetan etengabekoa izan da bide azpiegiturei buruzko eztabaida, eta etengabea, halaber, Gobernuak hau eta beste hura agintzera jotzea, eta ondoren ez gauzatzea, ez erkidegoaren beraren lanen kasuan ez eta Estatuaren eta Europar Batasunaren laguntza behar dutenetan.

Era berean, Parlamentuko sozialisten taldearen iritziz, Gobernuak ez du plan zehatzik gure erkidegoan zenbait arlotan ditugun gabeziei konponbideak emateko, esate baterako, hondakinen kudeaketaren arloan edo erkidegoaren eskualdeen arteko barne oreka handiagoa erdiesteko proposamenak aurrera ateratzeko helburuarekin.

Plangintza falta horren ondorioz, gerta daiteke Erriberarako proposatzea paisaiaren aberastasunean eta landa baliabideen ugaritasunean oinarrituriko aisia eta denbora librerako eremuak, bate-tik, eta hortik kilometro gutxitara ingurumenari begirunerik ez dioten ekimenak sustatzean ahale-gintzea.

Horrek guztiak kezka eragiten digu sozialistoi, kezka, sorrarazten digun sentsazioa delako garapen eta azpiegituren arloan Gobernuak plangintzarik eta politika argirik ez duela, eta proposatzen den apurra ez duela gidatzen ingumenarekiko konpromisoak, alegia, garapen jasangarria ziurtatzeko eta gure natur aberastasunaren ondarea etorkizuneko belaunaldientzat ere gordetzea bermatzeko behar-beharrezkoa dugun konpromiso horrek.

Arrazoi horiengatik, Gobernuari jabeltzen gatazka, jakiteko zein den afera honen diagnostiko egokiena eta Parlamentuak zein neurri proposa ditzakeen Gobernuaren politika hori sustatzeko.

Proposatzen dugun jabeldura

Gobernuari jabeltzen gatazka jakiteko zein diren Nafarroako Gobernuak, erkidegoa modernizatzeko eta barnetik orekatzeko helburuarekin, garapen, azpiegitura eta aurrerapen ekonomikorako egiten dituen politikak eta arlo honen norabidea ezarri behar duen ingurumenarekiko konpromisoarekin duten harremana, garapen jasangarria ziurtatzeko eta gure natur aberastasunaren ondarea etorkizuneko belaunaldientzat ere gordetzea bermatzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 1ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen dio UGTk bultzaturiko laneko iraunkortasun eta segurtasunerako herri-ekimen legegileari

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen dio UGTk bultzaturiko laneko iraunkortasun eta segurtasunerako herri-ekimen legegileari”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, mozio bat aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onar dadin. Mozio horren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen dio UGTk bultzaturiko laneko iraunkortasun eta segurtasunerako herri-ekimen legegileari. Ekimena eranskinean dago.

Zioen azalpena

Joan zen otsailaren 22an Nafarroako Parlamentuko Industria Batzordeak lan bilera bat egin zuen UGTren ordezkari batzuekin, sindikatu horrek bultzaturiko laneko iraunkortasun eta segurtasunerako herri-ekimen legegilea, Diputatuen Kongresuan erregistratzeko beharrezkoak ziren bostehun mila sinadura biltzea lortu duena, azaltzeko.

Ekimenak –lan bilera hartan azaldu zen eta eranskineko testuan ikus daitekeenez– langileen estatua, laneko arriskuei aurrea hartzeko legea eta beste hainbat lege aldatzeko aukera plazaratzen du, enpleguaren egonkortasuna areagotu eta behin-behinekotasuna murrizteko xedeekin; izan ere, azken horrek lan istripuen kopurua handitzea eta egoera zailak eragiten ditu, batez ere gazteen-tzat.

Horrenbestez, Parlamentuko gure taldeak honako mozio hau aurkeztu du onets dadin:

Proposatzen den erabakiaren testua

Nafarroako Parlamentuak sostengua ematen dio UGTk bultzaturiko laneko iraunkortasun eta segurtasunerako herri-ekimen legegileari, Gorte Nagusietan tramitatzeko aurkeztutakoari.

Iruñean, 2002ko otsailaren 22an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da liburutegiei buruzko foru lege proiektu bat igor dezan

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da liburutegiei buruzko foru lege proiektu bat igor dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Gobernuari egindako jabeldura baten ondorioa, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Aurrekariak

Liburutegiak gizarte baten kultur, hezkuntza eta informazio azpiegituraren funtsezko osagai ordezkazina dira eta, halaber, kultur ondarearen zati aldaezina. Ideia horrek garrantzi handia du gaur egungo gizartean. Gai hauen muntaren erakusgarri, UNESCOk 1994an liburutegi publikoei onetsi zuen manifestua eta Europako Kontseiluak eta EBLIDAK 2000. urtean hainbat jarraibide ezarri dituzte Europako liburutegien arloko lege eta politikari buruz.

1999ko uztailaren 20an eginiko inbestidura hitzaldian, Nafarroako Gobernuak lehendakari Sanz jaunak hitz eman zuen legegintzaldi honetan emanen zuela liburutegiei buruzko foru legea. Bi urte eta erditik gora iragan dira, ordea, eta ez da izan Gobernuaren ekimenik gai honetaz. Are gehiago, gure taldeak Nafarroako Gobernuari aurreko Osoko Bilkuran egin zion jabeldurari erantzutean, Laguna jauna ez zen gauza izan datarik zehazteko lege proiektu horren inguruan. Laguna jaunaren adierazpenen haritik, "hemendik gutxira hitzarmen bat izenpetuko dugu NUPekin arau esparrua prestatzeko" esan baitzuen, uler daiteke, gainera, ez zaiola ekin ezta proiektuaren prestatetari ere.

Aurrez esandakoak eta Nafarroa izateak Espainiako Estatuan liburutegien arloko legerik ez duen autonomia erkidego bakarra argi erakusten dute gure ustez ez dagoela inolako sentsibilitaterik gai honekiko, zerikusia badu ere pertsona guztien oinarrizko eskubideekin, jakintza, pentsamendua, kultura eta informazioa libreki eta mugarik gabe eskuratzeko eskubidearekin, alegia, baita eskubide kolektiboekin ere, gure herriaren arte, historia eta kultur ondarea osatzen duten materialak iraunarazi eta garatzeari dagokionez.

Hori guztia dela eta, gure taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du liburutegiei buruzko foru lege proiektu bat igor dezan 2002ko ekainaren 30a baino lehen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 25ean

Eleduna: Joxe Pernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da garapen-bidean dauden herriek osasun publikoaren arloan dauzkaten jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzeko neurriak bultzatzen

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da garapen-bidean dauden herriek osasun publikoaren arloan dauzkaten jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzeko neurriak bultzatzen".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketak Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, mozio bat aurkeztu du, garapen-bidean dauden herriek osasun publikoaren arloan dauzkaten jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzeko neurriak bultzatzen Espainiako Gobernua premiatzen duena, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onar dadin.

Zioen azalpena

Urtero, eritasun infekziosoek 17 milioi pertsona inguru hiltzen dute, horietatik % 90 herrialde txiroetan. HIES gaixotasuna duten 34 milioi pertsonen % 95ek ez du tratamendurik jasotzeko modurik. Botika eraginkor, merke eta erabilgarriren gabezia dela-eta, arnasketako infekzioak, malaria eta tuberkulosia dira Afrikan, Asian eta Latinoamerikan hildako eta gaixo gehien eragiten dituzten gaitzak. Egoera honek erronka handia dakar osasunaren arloan eta, beraz, segurtasun publikoaren arloan ere. Botikak eskura izatea kalitatezko osasun laguntzaren alderdi bakarra ez bada ere, funtsezko faktorea da, zalantzarik gabe.

1986an, Osasunaren Munduko Batzarrak Estrategia Berraztertua onartu zuen, sendagaien

arloan politika nazionalak abiaraztea sustatzeko. Halere, estrategia honek ez die erantzuten nazioarteko farmazia merkatuak dituen hiru arazo nagusiei: zenbait arlotan ekoizpena nahikoa ez izatea edo utzirik egotea, sendagai berrien ikerketa eta garapen falta, eta merkatuaren nazioarteko akordioen eragin kaltegarria.

Hirugarren atal horretan nabarmendu beharra dago Merkataritzako Mundu Erakundeak merkataritzaren inguruko jabetza intelektualaren eskubideen alderdiei buruz harturiko erabakia (ADPIC). ADPIC delako hori patente, copyright eta merkataritzako marken babeserako nazioarteko erabaki garrantzizkoena da; patenteak atxikitzen dizkie botikei hogeitertarako gutxienez, horrek esan nahi du patentearen titularrek haren monopolioa dutela denbora horretan eta ondorio kaltegarriak eragiten ditu garatzeko bidean dauden herrialdeek marka ezagunen alternatiba gisa botika generiko merkeagoak fabrikatzeko ahalmenean, hau da, patenteen ukiezintasunaren eta pertsonen osasunaren arteko desoreka dakar (ADPIB erabakian aurreikusiriko babes neurriekin ere).

Arazo honen muntak paper garrantzitsua betearazi dio Merkataritzaren Mundu Erakundeak Doha hirian eginiko goi-bileran, non garatze bidean dauden herrialdeek galdatu baitute sendagai generikoak fabrikatzeko aukera, bere osasun laguntza publikoaren politikaren barruan, HIES, tuberkulosia eta paludismoa bezalako pandemiari aurre egiteko, baita eskatu ere nahitaezko lizentziak eman eta inportazio paraleloak egin ahal izatea.

Goi-bilera hartan lortutako akordioak berebiziko garrantzia du zeren ezartzen baitu, ADPIC erabakiak hitzez hitz dioena aldatu gabe ere, garapen-bidean dauden herrialdeek ahalmena dutela inportaziorako eta ekoizpenerako nahitaezko lizentziak emateko, larrialditzat jotzen dituzten egoeretan. Nolanahi ere, hurrengo urtea amaitu aurretik Merkataritzaren Mundu Erakundeak konponbidea eman beharko dio ekoizpen ahalmen hori ez duten herrialdeentzako esportazioen arazoari.

Garatze bidean dauden herrialdeek osasun laguntza kalitatezkoa izateak badu tokirik Europar Batasunaren jardunean ere: 2001eko otsailaren 21ean, Batzordeak Ekintza Programa onetsi zuen:

GIB/HIES, malaria eta tuberkulosia gaitzen kontrako borroka bizkortzea, txirotasuna murrizteko testuinguruan; horrek laguntza handia ekarriko du, garatze bidean dauden herrialdeetan eta bizilagun txiroenei begira eritasun kutsakorrek garapenean eragiten dituzten traba eta oztopoak gainditzeko mundu osoan egiten ari den ahalegina areagotu eta sendotzeko, baina Batasuneko kide diren estatuen eta alde biko eta alde anitzeko emaleen inplikazio sakona eskatuko du aldi berean.

Horregatik guztiagatik, Parlamentuko Talde Sozialistak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du Parlamentuko Osoko Bilkuran:

1. Nafarroako Parlamentuak pozez hartu du Merkataritzaren Mundu Erakundeak Qatarren egitza goi-bileran garapen-bidean dauden herriek osasun publikoaren arloan dauzkaten jabetza intelektualeko eskubideen inguruan lortu den akordioa.

2. Nafarroako Parlamentua Espainiako Gobernua premiatzen du, Europar Batasuneko lehendakariaren dagoela baliatuz, behar diren neurriak har eta susta ditzan Merkataritzaren Mundu Erakundearen barrenean ezartzeko, 2002. urtea amaitu baino lehen, sendagaiak ekoizteko ahalmenik ez duten herrialde txiroei akordio horretan onartzen den inportazio ahalmena erabiltzeko bide emanen dieten tresnak.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du susta ditzan, halaber, Ekintza Programan GIB/HIES, malaria eta tuberkulosia gaitzen kontrako borroka bizkortzeko aurreikusiriko jarduketak, txirotasuna murrizteko testuinguruan, eta bereziki sendagaiak ekoizteko tokian tokiko ahalmena garatzeari dagozkionak.

Iruñean, 2002ko martxoaren 1ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akademieta-ko ikasleentzako informazioa arautuko duen lege proiektu bat igor dezan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akademieta-ko ikasleentzako informazioa arautuko duen lege proiektu bat igor dezan".

Biltzarreko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2002ko martxoaren 5ean egindako bileran, aur-

keztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Justizia Administrazioaren politika administratiboaren ildoak alda ditzan, oro har eta lehenbailehen

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA

Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak, 2002ko martxoaren 1ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Justizia Administrazioaren politika administratiboaren ildoak alda ditzan, oro har eta lehenbailehen".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Justizia Administrazioaren politika administratiboaren ildoak alda ditzan, oro har eta lehenbailehen

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du justizia administrazioko politika

administratiboa lehenbailehen eta modu orokorrean berbidera dezan, eta bereziki hurrengo alderdiei errepara diezaien.

– Nafarroako Gobernuko Justizia Zuzendaritza Nagusiaren kudeaketa.

– Epaile, Justizia Ministerio eta transferitutako funtzionarioen ordezkari sindikalekiko harremanak.

– Inbertsioak egiteko borondatea, eraikinak hobetzearren, horietan segurtasun neurriak jartzearen eta erregistroak informatizatzearen.

– Prozedura zibileko legea aplikatze aldera, giza baliabide, baliabide tekniko eta instalazioen egokitzapena.

– Lan egutegia organo judizialen funtzionamendu normalera egokitu beharra.

– Nafarroako mapa judizialaren funtzionaltasuna.

– Bake epaitegietako hornidura eta ekipamenduen fiskalizazioa.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Asteraingo errepideak Irurtzundik pasatzean sortzen dituen arazoetarako buruzkoa

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 4an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Asteraingo errepideak Irurtzundik pasatzean sortzen dituen arazoetarako buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Parlamentuko Askotariko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek erantzuteko eskatu du:

Irurtzungo saihebidetaren aldeko herritarren plataformak emandako datuek diotenez, herriak dituen arazo larrietako bat da Irurtzun zeharkatzen duen "Asteraingo errepidea" delakoak eragiten duen trafikoa, datu hauekin:

Lan egunak: batez beste, 2.352 ibilgailu egunean.

Autoak: 1.199,8 egunean.

Kamioiak: 303,8 egunean.

Kamioi txikiak: 205,2 egunean.

Bertako trafikoa: 643 egunean.

Jai egunak: batez beste, 1048 ibilgailu eguneko

Autoak: 1.048 egunean.

Kamioiak: 40 egunean.

Kamioi txikiak: 100 egunean.

Bertako trafikoa: 639 egunean.

Egun, errepide hori garraioko ibilgailu astunek erabiltzen dute Oskiko harrobietatik Gasteiz, Iruña edo Donostia aldera ateratzeko, herria zeharkatuz eta 90 graduko bira eginez 240 errepide nazionalera atzeratzerakoan, norabide horietako edozein hartzeko.

2000. urtean, herriko Udalak arazoari konponbidea emateko saihebidetaren baten proiektua aurkeztu zuen. Urte hartarako aurrekontuko kontu

ik ez zegoela jakinarazi zitzaion eta hurrengo urtean Udalak saihebidetaren gauzatzeko eskatu zion Nafarroako Gobernuari. Errepideen egungo plan zuzendarian ez da ageri saihebidetaren. Hori dela eta, hauxe da gure galdera:

1. Aurreikusirik al du Nafarroako Gobernuak saihebidetaren proiektu hori errepideen plan zuzendariaren berrikuspenean sartzea? Hala bada, zein dira gobernuak lanak hasi eta amaitzeko esku artean dituen epeak?

2. Daturik ba al du "Asteraingo errepide" horretatik egunero ibiltzen den trafikoa buruz, garraio astuna barne?

Iruñean, 2002ko otsailaren 22an

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan “aparteko orduak” kontzeptupean 2001eko lehen hiruhilekora arte eginiko ordainketei buruzkoa

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan “aparteko orduak” kontzeptupean 2001eko lehen hiruhilekora arte eginiko ordainketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galderak egin ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezazkion:

Gure Parlamentuko Taldeak galdera bat egin zion Osasun Departamentuari 2001eko ekainaren 5ean, jakiteko zer ordainketa egin dituen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak aparteko orduak direla-eta 2000n eta 2001eko lehen hiruhilekoan, ondokoak zehaztuta: ordainketa datak, zenbatekoa, lanpostua, zein unitate organikori

dagoen atxikita eta lantokia, eta zerk eragin duen ordainketa.

Oraindik ez dugu jaso ez erantzunik ez jarrera horri buruzko argibiderik, alegia, Cervera jaunak urratu egin du Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 14.2 eta 14.3 artikuluetan xedatutakoa. Jarrera hori ohikoa bihurtzen ari da, eta horrek agerian uzten du lan parlamentarioari zehazki jaun horrek dion errespetu eza.

Hori dela-eta, gure taldeak berriz aurkezten du orduko galdera eta, Cervera jaunaren berandutzea ikusita, 2001 osoari buruzko datuak nahi ditugu:

Zer ordainketa egin ditu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak aparteko orduak direla-eta 2000n eta 2001eko lehen hiruhilekoan?

Hauxe jakin nahi da:

– Ordainketa datak

– Zenbatekoa

– Lanpostua, zein unitate organikori dagoen atxikita eta lantokia

– Zerk eragin duen ordainketa.

Iruñean, 2002ko otsailaren 28an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Galdera, ekialdeko saihebidetako obrei buruzkoa

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak ekialdeko saihebidetako obrei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean honako galdera hauek aurkeztu ditu, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak idatziz erantzun ditzan.

Duela urtebete, obrak hasi ziren ekialdeko saihebidetan, Mendillorriko, Olatzera doan errepi-deko, Areta industrialdeko eta Sarriguren aldera doan bideko bidegurutzearen parean.

Egiten ari den obraren tamaina dela-eta ulergarria da trabak sortzea, baina egia da, halaber, zenbait akats ere badirela segurtasunaren aldetik: obra eremuan ez dago bide seinalerik –behin-behinekoz margotua edo argiztatua gauez–. Izan ere, egoera honek bide honen ohiko erabiltzaileen kexuak ez ezik, ibilgailuentzako arriskua ere eragiten ditu.

Horregatik guztiagatik, gure taldeak honako galdera hauek egiten ditu:

1. Zergatik ez dago eremu hori behin-behinekoz margoturik eta argiztatutik gauean?
2. Noizko aurreikusi da obren amaiera?
3. Betetzen ari al dira obra hori egiteko epeak? Iruñean, 2002ko otsailaren 25ean.

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Galdera, aurten gertatutako suteei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurten gertatutako suteei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko urriaren 8ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du gure erkidegoan aurten gertatutako suteei buruz. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Suhiltzaileen Partzuergoak emaniko estatistikan ikus daitekeenez, 2000. urtean gertatutako suteen sorburua hauexek izan dira:

JATORRIA	SUTE KOPURUA
Oinazturak	5
Arduragabekeria	115
Bestelako arrazoiak	15
Nahita piztutakoak	26
Arrazoi ezagunik gabekoak	383
Guztira	544

Erretako azalera: 1.000 hektarea.

2001ean, uztailaren 31ra bitarte emandako datuak hauexek dira:

Sute kopurua: 171

Erretako azalera: 300 hektarea.

Urte amaierara arte ez dugu eskura izanen 2001eko sute kanpainari buruzko daturik.

2. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak inbertsioak egiten ditu urtero suteen prebentziorako eta erretako eremuak lehengoratzeko.

Suteen prebentzioko lanak, funtsean, hauexek izaten dira:

– Sarbiderako pistak eta sua geldiarazteko eremuak sortzea.

– Ur-guneak sortzea.

– Prebentzioko basogintza baso-masetan.

Lan hauetarako 2001eko aurrekontua 110 milioi pezetakoa izan da.

Erretako eremuak lehengoratzeko lanak, funtsean, hauexek dira:

– Eragina jasan duen landare materiala garbitu eta suntsitzea.

– Basoa berez birsortzen laguntzeko basogintzako lanak.

– Berez birsortzea zaila duten eremuak basoberritzeko lanak.

Lan hauetarako 2001eko aurrekontua 200 milioi pezetakoa izan da.

Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak beste departamentu batzuek ere, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak, kasu, diru kopuru handiak ematen dituzte baso suteetarako, batez ere horiek itzaltzeko.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak, aipatutako bi departamentuen bitartez, urtero ezartzen du basoko suteen prebentzioari buruzko informazio kanpaina bat.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 24an.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Galdera, ondare historikoaren inbentarioan ageri diren etxebizitzak zaharberritzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak ondare historikoaren inbentarioan ageri diren etxebizitzak zaharberritzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko urriaren 8ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari

Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundearen ondare historikoaren inbentarioan ageri diren etxebizitzak zaharberritzeari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

1. Azken bost urteotan honako dirulaguntzak eman dira:

a) 1997an 85 eskabide jaso ziren eta horietatik 48 onartu. Dirulaguntzen zenbatekoa 66.787.127 pezetakoa izan zen.

b) 1998an 112 eskabide jaso ziren eta horietatik 50 onartu. Dirulaguntzen zenbatekoa 66.325.264 pezetakoa izan zen.

c) 1999an 111 eskabide jaso ziren eta horietatik 75 onartu. Dirulaguntzen zenbatekoa 93.311.629 pezetakoa izan zen.

d) 2000an 111 eskabide jaso ziren eta horietatik 51 onartu. Dirulaguntzen zenbatekoa 81.633.492 pezetakoa izan zen.

e) 2001ean 103 eskabide jaso ziren eta horietatik 38 onartu. Dirulaguntzen zenbatekoa 59.664.604 pezetakoa izan zen.

Eskabideetako batzuk ondare historiko artistikoaren inbentarioan sarturik ez dauden higiezinetarako dira.

2. Ez dugu daturik eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoari buruz, eskabidea onartzen ez denean dokumentazioa itzuli egiten dugulako eta eskabide batzuetan ez delako aurrekonturik agertzen.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 26an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Mendillorriko bidegurutzean irailaren 1ean egin zen trafikokontrolari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Mendillorriko bidegurutzean irailaren 1ean egin zen trafikokontrolari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko urriaren 15ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Mendillorriko bidegurutzean irailaren 1ean egin zen trafikokontrolari buruz. Hona, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Badostaingo kontzejuko jaiak izaki zenbait espektulu aurreikusita zeudenez, Eguesibarko Udalak Foruzaingoaren laguntza eskatu zuen trafikoa zuzen zezan Badostaingo sarreretan; hain zuzen ere, Correfocs eta Barricada taldeak ziren jotzekoak irailaren 1ean (larunbata), gaueko hamarretan eta hamaiketan hurrenez hurren. Eskaria berretsi egin zen, eta zehaztu ere bai Iturberri elkarteko ordezkariak –ekitaldiaren antolatzaileak– Barne zuzendari orokorrarekin eginiko bilera batean; zuzendari orokorra beharrezko jarraibideak eman zizkion Foruzaingoaren buruari.

2.- Foruzaingoak, espero zen trafikoa kontuan hartuta, plana gauzatu zuen aparkalekuak izateko eta Badostaingo sarbideetan trafikoa kontrolatzeko; horretarako, antolatzaileekin, NA-32 errepidean obrak egiten ari den enpresako arduradunekin eta Eguesibarko udaltzaingoarekin bildu zen.

3.- Foruzainek lekua uzteko agindua Foruzaingoaren agintariak eman zuten, eta agindu hori Guardia Zibila heldu aurretik eman zuten, eta haiek drogak atzemateko kontrola jartzeko asmorekin ez zuten inongo zerikusirik.

4.- Planean aurreikusitako neurriak irailaren 1eko 21:30ean jarri ziren abian. Gauean zehar ikusi ahal izan zen 80ren bat ibilgailu besterik ez zela joan Badostainera –espero zena baino askoz ere ibilgailu gutxiago–, eta gehienak 22:45a aldera heldu zirela, 11 auto sartu baitziren batera. Horren ondorioz, halako batean, zerbitzuaren arduradun zen kaboak Mutiloa Beheitiko bidegurutzerara jo zuen, han Foruzaingoaren beste patruila bat baitzegoen, arazorik al zegoen egiaztatzerara; ikusi zuenez ez zela beharrezkoa han egotea trafikoa zuzentzeko, zerbitzua bertan behera uztea erabaki zuen. Orduan, han zeuden foruzainek jakinarazi zioten Guardia Zibilak drogen kontrola jarri nahi zuela, eta aurretik galdetu ziela ea arazorik ba al zuten; Foruzaingoaren arduradunak ez zela arazorik adierazi zuen, zerbitzua kentzea erabaki baitzen beharrezkoa ez zela iruditzen zitzaiolako: sarrera ongi joan bazen, irteera ere ongi joanen zen, gutxinaka egiten zela uste izateko baitzen. Halaber, arduradun horrek zerbitzuko partean jarri zuen Foruzaingoa herriaren sarreran ere ez zela beharrezkoa izanen, NA-32 errepidean obrak izanda ere ez baitzen inongo trafikoa arazorik izanen.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 26an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurra Indurain

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat..... 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 1,14 »	